

# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

### 5844

*EBAZPENA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen (Elkartek Programa) 2020ko ekitaldirako I. faserako deialdia.*

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Agindua-  
ren bidez (2016ko abenduaren 29ko EHAA, 247. zk.), arlo estrategikoetan Elkarlaneko Ikerketa  
sustatzeko laguntza-programa arautzen da: Elkartek Programa. Agindu hori Ekonomiaren Gara-  
peneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko abenduaren 17ko Aginduak aldatu du (2018ko  
abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.).

Aipatutako agindu arautzailearen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, I. fasearen –proiektuak  
onartzea eta hautatzea– deialdia egin behar da 2020rako, horretarako beharrezkoak diren arauak  
zehaztuz.

Horrenbestez, erreferentziako dekretuaren 10. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita,  
honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen helburua hau da: Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren  
2016ko abenduaren 9ko Aginduan aurreikusitako I. fasearen –proiektuak onartzea eta hautatzea–  
deialdia egitea 2020ko ekitaldirako. Agindu horren bidez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa  
sustatzeko laguntza-programa arautzen da – Elkartek Programa.

##### 2. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Agin-  
duaren 11. artikuluan ezarritako zehaztapenekin bat etorri egin behar da eskabidea –agindu  
horren bitartez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa arautzen  
da (Elkartek Programa)–. Agindu hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren  
2018ko abenduaren 17ko Aginduak aldatu du (2018ko abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.).

2.– Eskabidera sartzea eta berori betetzea honako egoitza elektronikoan soilik egin ahalko da:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gaztelania)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskara)

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argita-  
ratu eta hurrengo egunean hasiko da, 09:00etan; amaitu, berriz, 2020ko otsailaren 27ko 12:00etan  
amaituko da.

4.– Deialdi honetara, 2020-2021 epealdian garatuko diren proiektuak aurkeztu ahal izango dira.

2019ko abenduaren 20a, ostirala

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio-organo bat eratzen da, zeinaren osaera hauxe izango baita:

Lehendakaria: Teknologiaren arloan eskumenak dituen Zuzendaritzako titularra, Alberto Fernández González eta ordezkoa: Ekintzailtzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen arloan eskumenak dituen Zuzendaritzako titularra, Aitor Urzelai Inza.

Honako kide hauek bokalak izango dira:

– Industriaren Garapenaren arloan eskumenak dituen Zuzendaritzako titularra, Mikel Amundarain Leibar; eta ordezkoa: Industriaren Garapenaren arloan eskumenak dituen Zuzendaritzako teknikari bat, Agustín García Pérez.

– SPRIren ordezkaria, Maite Hernández Hernández; eta ordezkoa: Miguel García Altuna.

– Teknologiaren arloan eskumenak dituen Zuzendaritzako teknikari bat, Jesús Ángel Martínez Martínez; eta ordezkoa: Natividad Niño Bartolomé, zeinak idazkari-lanak egingo baititu.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 10a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,  
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.